

IRABAZI ITURRIAK:

Gure enpresaren diru-sarrerak eskaintzen ditugun **produktuak saltzen** lortuko dira. Beraz; **aktiboen salmentaz** lortuko ditugu irabaziak, gure aktiboa BARF dieta izanez.



Erabiliko ditugun bi ordainketa motak:

- Ordainketa bakarra.** Ordainketa bakarra aukeratzen duten bezeroak prezio finkoak eta aldakorrek **finkatutako prezioa** guztira ordainduko dute.
- Ordainketa errepikakorra.** Ordainketa errepikakorra aukeratzen duten bezeroak **onurak eta beherapenak** izango dituzte. Izan ere, hilabetero diru-sarrera jakin batzuk lortuko ditugu haiei esker. Nahiz eta hasieran egindako inbertsioaren ostean dirua behar, ez dugu gure produktuaren prezioa aldatuko eta irabaziak enpresan inbertituko ditugu. Ordainketa errepikakorraren bidez, bezeroek, izena emanda astero bere dieta prestatua izateko aukera izango dute.

DIETA MOTA	PREZIOA (ordainketa bakarra)*	HILEKO SALMENTA	HILEKO SALMENTA
Oilaskoa eta barazkiak (1kg)	50€	25 unitate	1250€
Oilasko eta arrain menua (1kg)	50€	25 unitate	1250€
Oilaskoa eta barazkiak (1kg) - Etxez-etxeko zerbitzua	55€	15 unitate	825€
Oilasko eta arrain menua (1kg) - Etxez-etxeko zerbitzua	55€	15 unitate	825€

*ordainketa errepikakorra, astero bezeroak 1kg dieta jasotzeko, 200€-ko kostua dauka.

Enpresaren kostuak ikusita, galera eta mozkinik ez izateko eta inbertitutakoa berreskuratzeko **7.829€ beharko genuke hilean**. Salmenten %50-a dendara hurbilduko diren pertsonen erosketak izango direla eta beste %50-a etxez-etxeko zerbitzua eskatuko dituztenenak, batez besteko irabazia saltzen den produktu bakoitzatik 52,5€ dira. Hala, kostuak gainditzeko hileroko 149 produktu saldu behar ditugu. 37 bezero astero produktu bat erosiz, nahikoa izango litzateke beharrezko unitateak saltzeko.

Kontuan izan behar da, ziurrenik lehen hilabeteetan ez dugula ordainketa errepikakorrik aukeratutako bezeroak izango. Hala ere, egoera horretan, salmenten %25-a dendara hurbilduko diren pertsonen erosketak izango direla, beste %25-a

etxez-etxeko zerbitzua eskatuko dituztenenak eta azken 25%-a salmenta errepikakorra eskatutakoenak, batez bestekoa 101€-etara igotzen da, eta saldo beharreko produktu kantitatea 77 unitatera jaisten da. Beraz, 19 bezeroekin beharreko unitateak salduko genituzke.

Irabazi-iturrien egitura:

Prezio finkoak	Prezio dinamikoak
<p>- Zerrendako prezioari dagokionez, hau da, oinarrian gure produktua ekoiztea duen kostua kontuan izanda: 35.8€</p>	<p>- Marjinaren kudeaketa eta denbora errealeko merkatua: erosketak gutxitzen badira edo bezero kopuru txikia badaukagu prezioa ezin izango da oso txikia izan, irabaziak matendu behar baititugu.</p>
<p>- Gure produktuak duen ezaugarriak kontuan hartuta; hau da, elikagai naturalak eskuratzea izango duen kostu gehigarria kontuan hartuta, baita elikagai horrek prozesatzea eta enpaketatzea ahalik eta aztarna ekologiko txikiena sortuz, errentagarritasuna bermatzeko prezioaren portzentai txiki bat suposatuko du (Prezioaren %10 suposatzen du, 5€ gehiago kostatzen zaigu guri mota horretako dieta produzitzea)</p>	<p>- Segur aski Euskadi edo Espainia mailan BARF dieta eskaitzen duten enpresak daudela (Natuka edo AltuDog). Baina gurea hasieran Durangaldeko biztanleentzako zuzenduta dagoenez, gertutasuna eta dietaren prestaketa produktua jasotzen den egun berdinean egiten denez, gure produktua onurak ditu “supermerkatutik platerera”.</p>
<p>- Zuzenduko garen merkatu segmentua txakurrak dituzten pertsonak dira. Oso talde heterogeneoa da: adin ezberdineko pertsonak izango dira, familiak, bikoteak... diru-sarrera desberdinak dituztenak. Beraz, bezeroen ezaugarriak kontuan hartuta maila-ekonomiko orokorrenzat eskuragarri den prezioa zehazten saiatu gara.</p>	
<p>- Bolumenaren arabera prezioa: Hileroko ordainketa finkoa egiten duten bezeroentzako dieta merkeagoa izango da (%5-eko deskontua) eta gero eta kantitate handiagoa erosiz gero, pack-oferta interesgarriagoak eskainiko ditugu (1kg baino gehiagoko erosketan %5-eko deskontua, 5kg baino gehiagoko erosketan %5,5-eko deskontua eta 10 kg baino gehiagoko erosketan %10-eko deskontua)</p>	